

IRAGARKIA

Alkateak 2022ko abenduaren 26an emandako dekretu baten bitartez Bergarako kultur sorkuntzarako bekaren deialdia (2022. ekitaldia) onartu da eta honen bidez argitaratzen da:

BERGARAKO KULTUR SORKUNTZARAKO BEKAREN DEIALDIA **(2022. EKITALDIA)**

I. XEDEA

1. artikulua.- Xedea

Deialdi honen helburua da "SORKUNTZA BEKAK" eskatzeko eta emateko prozedura arautzea, Bergarako sortzaile berrien kultur sorkuntza bultzatzeko.

Kultur sorkuntza bezala ulertzen da artistaren imajinaziotik eratorritako ondorengo edozein lan: musika, pintura edo eskultura lanak, literatura obrak, antzerki obrak, zine obrak, komiki lanak, soinu konposizioak, ikus-entzunezko konposizioak, konposizio digitalak, dantza koreografiak etab.

Beka hauen helburua da sortzaileei beraien obra sortzeko laguntza ekonomikoa ematea.

2. artikulua.- Ezargarri den araudia

Dirulaguntza hauek ematerakoan, eta onuraduna eta erakunde emailea elkarrekin lotuko dituen harreman juridikoa finkatzerakoan, oinarri hauek eta dirulaguntzak ematen direnean indarrean den araua bete beharko dira:

- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena.
- Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra, 2022ko azaroaren 30ean argitaratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 227 zenbakian.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

3. artikulua.- Onuradunak

Beka hau kultur eremuren batean diharduten edo hasi nahi duten pertsona fisikoek lor dezakete. Halaber, izaera juridikorik gabeko talde kulturalak ere izan daitezke onuradun.

Horretaz gain, eskatzaileak edota taldekide guztiek nahitaez egiaztatu beharko du dirulaguntza eskatzeko datan 16 urteko adina betea izatea.

Onuradunek Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 6. artikuluan eskatutako baldintzak ere bete beharko dituzte.

II. ESKAERAK

4. artikulua.- Baztertuak

Balioespen Batzordeak eskumena izango du, kasuz kasu, dirulaguntza eskaera bat deialditik kanpo uzteko, betiere honako irizpideak kontuan izanik eta behar bezala arrazoitu ondoren.

Baztertuak izango dira, espreski:

1.- Ibilbide luzeko artistak.

Balioespen Batzordeak egin litzakeen beste edozein interpretazio kaltetu gabe, ibilbide luzea duen artistatzat hartuko da, eskaerarekin batera aurkezturiko C.V.aren baitan eta arlo jakin batean bost (5) urte baino gehiagoko eskarmentua duen artista. Talde bat aurkeztuko balitz, talde horren ibilbidea zein den adieraziko da, eta adierazitako ildoari jarraiki, taldeak bost (5) urte baino gehiago baditu kanpo utziko da. Taldekideen kasuan, partaideen 2/3 sortzaile berriak izan behar dira.

Urteen zenbaketaren eraginetarako, COVID-19agatik eragindako urteek –hain zuzen ere, 2020 eta 2021 urteek– ez dute zenbatuko.

2.- Kultur arloren batetik, deialdi honetako 1. artikuluekin bat, azken 5 urteetako urteren baten 15.000,00 euro gordinetik gorako diru-sarrera muga gainditu duen artista edo artista taldea.

3.- Elkartek.

4.- Euskaraz ez den beste hizkuntza batean aurkeztu diren proiektuak.

5.- Era zuzenean edo zeharka indarkeria bultzatzen duten edota indarkeria motaren bati apologia egiten dioten proiektuak. Halaber, zuzenean edo zeharka giza eskubideak urratzen dituen edozein proposamen. Era berean, 4/2005 Legearen arabera diskriminaziorik dakartenak kanpo utziko dira.

6.- Taularatu edo jendaurrean aurkeztutako proiektuak.

7.- Bergaran erroldatuak ez daudenak. Taldekideen kasuan, partaideen 1/2 Bergaran erroldatuak beharko dute egon. Kide-kopurua bakoitia bada, beherantz borobilduko da. Udalak ofizioz egiaztatuko du taldekideak Bergaran erroldatuak dauden edo ez.

8.- Deialdi honetako 1. artikuluekin bat, Kultur sorkuntzak ez diren proiektu edo lanak.

Era berean, modu orokorrean deialdi honen bidez lagunduko diren ekintzetatik kanpo geratuko dira honako jarduerak:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzetako Lege Orokorraren 13.2. eta 13.3. artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean sartuak daudenak.

- Bere izaera eta helburuengatik beste udal arlo edo erakunde autonomoren baten programa baten edo batzuen bidez bideratu behar zirenak. Dena den, horrelakoetan, dagokion erakunde edo udal arlora bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

5. artikulua.- Eskabideak aurkeztea

Laguntza horiek jaso nahi dituztenek deialdian zehaztutako ereduaren araberrako eskabide-eredu ofiziala bete eta aurkeztu beharko dute. Eskerak bi modutan aurkez daitezke:

- Aurrez aurre aurkeztea: Bergarako Udaleko Erregistro Nagusia (B@Z arreta zerbitzua) aurkeztuko dira, edo 39/2015 Legeak 16.4. artikuluan aurreikusitako bitartekoetatik edozein erabiliz.
- Elektronikoki: eskabideak aurkezteko, udalaren egoitza elektronikora jo beharko da, haren web-orriaren bidez.

Eskara kopuruari dagokionean, eskatzaile bakoitzari gehienez ere **bi proiektutarako** laguntza emango zaio (balin eta Baliospen Batzordeak bi proiektu finantzatueto dituela erabakitzen badu).

Eskara-orriarekin batera, honako agiriak aurkeztu beharko dira:

1. Inprimaki normalizatu.

2. Eskatzailearen eta/edo ordezkariaren Nortasun Agiriaren kopia. Taldeen kideen kasuan, taldekideen izen-abizenen zerrenda eta bakoitzak taldean izango duen rol edo papera. Dirulaguntzaren eraginetarako, ordezkari bat izendatu beharko da.

3. Kontu korrontearen titularitatea egiaztatuko duen agiria.

4. Dirulaguntza eskatzen den proiektuaren gaineko **memoria tekniko**. Memoria teknikoak proiektuaren inguruko informazioa jasoko du, bestek beste: proiektuaren azalpena, sorkuntza-prozesua, kronograma, plazaratzeko proposamena, beharrezko baliabide materialak zein pertsonalak...eta balorazio irizpideen arabera baloratzeko beharrezkoak irizten direnak. Memoria tekniko 15 orrialdekoa izango da gehienez. Ez dira zenbatuko portada eta aurkibidea.

5. Curriculum Vitae-a, kultur arloan izandako lan-eskarmentuari mugatutakoa. Taldearen kasuan, taldekide bakoitzaren eta taldearen ibilbidea azalduko duen dokumentua aurkeztu beharko da (taldearen sorrera, egindako emanaldi zein bestelako ekoizpen kulturalak...)

Eskariak aurkezteak, deialdi honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla esan nahi du.

Aukeratu gabeko lanak itzuli egingo dira, eta egileek edo horien ordezkariak jaso ahal izango dituzte, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 15 egun naturaletara. Horrela egin ezean suntsitu egingo dira urte beteko epean, eta esandako epea igaro ondoren, udala ez da arduratuko galtzen diren lanez edota kopiez.

6. artikulua.- Eskariak aurkezteko epea

Eskerak aurkezteko epea honakoa da: 30 egun natural Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

7. artikulua.- Akatsak zuzentzea

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat balin badu edo osatu gabe balin badago, eskatzaileei hamar lan-eguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita eskaera zein hari dagozkion agiriak osatu edo zuzentzeko. Ez da inola ere aukerarik izango memoria tekniko aldatzeko.

Emandako epea amaitutakoan akats horiek konpondu gabe baleude, eskaera bertan behera utzi dutela ulertuko da.

III. BEKA EMATEA

8. artikulua.- Aurrekontua eta dirulaguntzen zenbatekoa

Dirulaguntza hauek Bergarako Udalaren aurrekontu propiotik finantzatuko dira. Programa honen xede diren dirulaguntzetara bideratutako diru-kopurua gehienez 5.000 eurokoa da eta ondorengo diru-partidatik finantzatuko da: 1 3310.481.334.04.00 2022 (B.K. 1435).

Diru kopuru hori (5.000 euro) eman daitekeen gehienekoa da. Bekaren hartzailea, printzipioz, bakarra izango da. Hala ere, Balioespen Batzordeak hala erabakita, onuradun gehiago aitortu ditzake egindako eskaeren eta soberan dagoen zenbatekoak aintzat hartuta. Bide horretan, puntuazio altuena lortu duenari dirulaguntza onartuta kreditua soberan geldituko balitz, hurrenkeran bigarren dagoenari eskainiko zaio. Dinamika bera jarraituko da hurrenkeran azkena dagoenera arte.

Oinarri hauetako 14. artikuluekin bat, diruz lagunduko da kostu materiala (material, ekipo zein bestelako ondasunen erosketa; zerbitzuen kontratazioa; alokairu zein bestelako gastuak...) eta giza baliabideei dagokien kostua. Giza baliabideei dagokien kostua ere jaso ahalko da diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu zehatzean, zenbatekoa eta kostu materialekiko ehunekoa adierazita. Gehienez kostu materialaren %40 joko da giza baliabideei dagokien gastutzat, taldearen zein proiektuaren izaera edozein dela ere. Justifikazio garaian, ez balitz ordaindutako zenbateko guztia justifikatzen, justifikatutakoaren ehunekoa izango da giza baliabideen kontzeptuan ordainduko dena.

Edozein kasutan, dirulaguntzaren zenbatekoa (kostu materiala eta giza baliabideei dagokiena) inolaz ere ez da izango –hura bakarrik hartuta edo beste Administrazio Publikoek, edo beste Erakunde publiko eta pribatuek emaniko laguntza edo dirulaguntza batekin batuta– onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua eta giza baliabideei dagokien gastua baino handiagoa. Alegia, zenbatekoak ezingo du gainditu onuradunak egin behar duen jardueraren kostua, bai era isolatuan bai Administrazio berak edo beste entitate publikoek edo pribatuek emandako dirulaguntzekin batera.

9. artikulua.- Dirulaguntza ordaintzea

Programa honen kontura emandako dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira: %60 ebazpena onartzean, eta gainerakoa ekimena justifikatzeko dokumentazioa aurkezten dutenean.

Emandako dirulaguntza, bankuko transferentzia bitartez ordainduko da, pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean. Taldeko onuradunaren kasuan, kontu-korrante bakarrean egingo da ordainketa, taldeko ordezkariak adierazitako kontu korrante zenbakian.

10. artikulua.- Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna

Oinarri hauen arabera emandako dirulaguntzak helburu berarekin ematen diren beste dirulaguntzekin bateragarriak izango dira, beti ere gain-finantziazorik ez balego. Hala, onuradunak aurkeztutako edo emandako beste dirulaguntzen berri eman beharko dio Bergarako Udalari.

IV. PROZEDURA

11. artikulua.- Balorazio irizpideak

Aurkeztutako proiektuak baloratzeko erabiliko diren irizpideak honako hauek izango dira:

- Proiektuaren azalpenaren egokitasuna eta zehaztasuna: 10 puntura arte.
- Proiektuaren interesgarritasuna, publiko berriak sortzeko edo inplikatzeko gaitasuna, Bergararentzat duen garrantzia (kulturala, historikoa, artistikoa...), kalitatea, izaera berritzailea eta sortzailea: 35 puntura arte.
- Proiektu berean kultur diziplina bat baino gehiago erabiltzea: 5 puntura arte.
- Bestelako eragile sozial zein kulturekin sinergiak planteatzea: 5 puntura arte.
- Genero ikuspegia txertatzea, bai sorkuntzaren emaitzan bai ekoizpen edo sorkuntza prozesuan. Halaber, artista edo artista talde horrek diziplina jakin horretan generoen errepresentazioarekin apurtzea ere balora dezake Balioespen Batzordeak: 5 puntura arte.

Proiektuak banaka baloratuko dira, alegia, pertsona edo talde batek proiektu bat baino gehiago aurkeztuko balitu, bi balorazio egingo dira.

Beka puntuaziorik altuena lortzen duenari emango zaio, eta **gutxienez 35 puntu** lortu beharko dira (kontuan hartuta 8. artikuluan xedatutakoa). Hala, batzordeak deialdia bete gabe utzi ahal izango du, baldin eta irizten badio proposamen batek ere ez duela behar adinako interesik edo kalitaterik lortu.

12. artikulua.- Prozedura

Gauzatzea eta proposamena

1. Kultura saileko talde teknikoari dagokio deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen kudeaketa lanak burutzea, baita bitartekari lanak eta beka hartzailearekin harremana izatea ere.

2. Eskaerak kide anitzeko balioespen batzorde batek aztertu eta ebaluatuko ditu. Honako kideez osatua egongo da:

- Kultura Zerbitzuko arduraduna, lehendakari lanak egingo dituen.
- Gazteria, Hezkuntza eta Partaidetza teknikaria.
- Berdintasun teknikaria
- Zerbitzu Orokorretako eta Kontratazioko Administrazio Orokorreko Teknikaria, balorazioaren bideragarritasun juridikoaz eta taldearen idazkaritzaz arduratuko dena.

Era berean, batzorde honek egoki ikusiz gero, gaian aditu direnen parte hartzea edo iritzia eskatu ahal izango du.

Balioespen Batzordeak ebazpen-proposamena egingo du. Berdinketa kasuan honela zehaztuko da hurrenkera:

- Ibilbide motzena duen artista edo taldea.
- Kultura arloan errotutako genero errepresentazioarekin gehien apurtzen duena.

3. Dirulaguntzen ebazpen proposamena organo eskudunari helaraziko zaio, hark ebazpena eman dezan. Bertan zehaztuko da dirulaguntza zein eskatzaileri ematea erabaki den, eta dirulaguntzaren zenbatekoa. Ebazpenaren berri emango da, 39/2015 Legeko 45. artikulua eraginetarako, www.bergara.eus webgunean, zehazki Kultur Zerbitzuari dagokion atalean.

V. DIRULAGUNTZEN KONTROLA

13. artikulua.- Onuradunen betebeharrak

Emandako laguntza justifikatzeko, erakunde onuradunek Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorreko 8. artikuluan adierazitako betebeharrak bete beharko dituzte. Halaber, Onuradunak hauek agertu beharko ditu:

1. Dirulaguntza ematea oinarritzen duen egoeran jarduera egitea edo jokabidea hartzea.
2. Diruz lagundutako jarduera burutzeko behar diren baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
3. Proiektua 2023ko abenduaren 1erako jendaurrean jartzeko edo taularatzeko prest beharko du egon. Onuradunak diruz lagundu den bere lanaren aurkezpena jendaurrean burutuko du Bergaran eta euskaraz. Aurkezpen horretarako eguna eta lekua kide anitzeko balioespen batzordea eta artistaren/onuradunaren artean zehaztuko da.
4. Diruz lagundutako jarduera burutzeko garaian sortzen diren hondakinak modu egokian kudeatu beharko dira; hau da, gaika sailkatuak izan beharko dute eta horretarako aurreikusita dauden guneetan edota edukiontzietan utzi.
5. Entitate laguntza-emaileak egin beharreko egiaztatze-jarduketari trabarik ez jartzea.
6. Jasotako dirulaguntza itzuli beharko du onuradunak, laguntza hori emateko ezarritako baldintzak ez baditu betetzen, edota jasotako diru-kopurua gauzatu duen jardueraren kostua baino handiagoa bada.
7. Espedientea izapidetzen ari den departamentuak, udal kontuhartzaileak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste organo eskudunen batek eskatutako informazioa emateko betebeharra du onuradunak.
- 8.- Onuradunek konpromisoa hartzen dute diruz lagundutako proiektua herritarren eta hedabideen artean ahalik eta gehien zabaltzeko. Proiektuaren zabalkundean, Bergarako Udaleko logoa ikusgai jarri beharko da euskarri guztietan eta leku nabari batean. Zabalkundean udal komunikazio zerbitzuarekin eta kultura zerbitzuarekin koordinatu beharko da.
- 9.- Parte-hartzaileak izango dira deialdi honen esparruan aurkezten dituzten proiektuen originaltasunaren eta egile izatearen erantzuleak. Aurkeztutako proiektuaren jabea intelektualari buruzko erreklamaziorik balego, proiektua aurkeztu duen pertsona izango da horren erantzule. Era berean, deialdira aurkeztutako proiektua beste deialdi batzuetara aurkeztu ahalko da (lehiaketak, jaialdiak etab.) betiere Bergarako Udalaren irudi korporatiboaren elementuak erabiliz. Bergarako Udalari jakinarazi beharko zaio.
- 10.- Diruz lagundutako proiektuak komunikatzeko, erakusteko edota erabiltzeko (irabazi asmorik gabe) eskubidea izango du Bergarako Udalak. Hala, onuradunak udalari lagatzen dizkio eskubide horiek legeak onartzen duen epe gorenerako, munduko geografia

esparrurako. Halaber, parte-hartzaileek baimena ematen diote udalari artisten irudiak (proiektu honen baitan) erabiltzeko informazioa zabaldu edo sustapen jarduerak egiteko.

11.- Udalak proiektuaren jarraipena egingo du hartara finkatutako jarraipen mekanismoen bidez (entrega puntualak, bilerak...).

12.- Proiektua amaitutakoan lanaren kopia bat (lanaren izaeragatik posible bada) edota ikus-entzunezko artxiboa emango zaio formatu informatikoan udalari. Udalak egokitzat hartzen dituen kanalen bidez zabaldu eta ezagutzera eman dezake.

14. artikulua.- Diruz laguntzeko gastuak

Deialdi honen ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen gastuak dira diruz lagunduko den jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe dagozkion gastuak, betiere berariazko oinarri arautzaileetan ezarritako epean egin direnean. Diruz lagundutako elementuen erosketa kostua ezin daiteke inoiz merkatuko balioa baino handiagoa izan.

15. artikulua.- Zuriketa

Modu orokorrean, oinarri hauen xede diren dirulaguntzak egiaztatzeko, ondorengo egiaztatze agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Jarduketa memoria, dirulaguntza ematean jarritako baldintzak bete izana frogatuko duena, zer jarduera burutu diren eta zer emaitza lortu diren adierazita. Gainera, bidezko denean, partaideen datuak adieraziko dira, sexua aipatuta eta, ahal den neurrian, datu horien azterketa eta interpretazioa.

b) Jardueran izandako gastu eta inbertsioak sailkatzeko zerrenda. Hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazi behar dira.

Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, zein desbiderapen izan den adierazi behar da.

c) Diruz lagundutako jarduketa finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Egindako lanaren egiaztapen eta lekuko gisa baliagarri izango den dokumentazio grafiko edo ikus-entzunezkoa.

Dirulaguntza ematen duen organoak behar adina frogagiri egiaztatuko du, dirulaguntza behar bezala erabili dela zentzuz agerian uzteko beharrezkoak diren guztiak. Horretarako, berak hautatutako gastu frogagiriak bidal ditzala eskatuko dio onuradunari.

Agiriak aurkezteko epea: Zerrendatutako agiriak aurkeztu beharko ditu onuradunak proiektuaren aurkezpena/emanaldia egin eta hilabeteko epean.

Deialdian dirulaguntza egiaztatzeko ezarritako epea igarota, onuradunak ez baldin badu aurreko atalean aipatutako dokumentazioa aurkeztu, Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean xedatutakoa izango da aplikagarri. Hau da, egin beharreko justifikazioa edota txostena zehaztutako epean ez aurkezteak automatikoki ekarriko du dirulaguntza ezestea, edota jasotako diru-kopurua itzuli beharra.

VI. ARGITARA EMATEA

16. artikulua.- Informazioa argitaratzea

Emandako dirulaguntzen zerrenda, onuradunen izen-abizenekin eta emandako kopuruekin, Bergarako Udalaren web orrian eta iragarki-oholean argitaratuko da.

Dirulaguntzen datuak ez dira argitaratuko, baldin eta dirulaguntzak argitaratze hori pertsona fisikoen ohorearen errespetu eta babesaren nahiz intimitate pertsonal zein familiarraren aurkakoa denean, eta dirulaguntza hori arautzen duten oinarrietan horrela jasota dagoenean.

VII. OINARRIEN INTERPRETAZIOA ETA HELEGITEAK

17. artikulua.- Oinarrien interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaren harira sor daitekeen edozein zalantza udalak erabakiko du. Deialdi honetako 2. atalean zehaztutako arauak izango dira interpretazioen oinarri.

18. artikulua.- Helegiteak

Oinarri hauen aurka berraztertzeke errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean. Epeak, beti ere, oinarri hauek argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko dira zenbatzen.

Bergara, 2023ko urtarrilaren 27a

Alkateak